

Iturri Bila

Joxe Manuel Odriozola eta Iosu Txapartegi

Joseba Arregiren hizkuntz politika

Ez da denbora asko HABEren hamargarren urteurrena ospatu dela. Ospakizun horien artean jardunaldi batzuk antolatu ziren, eta hitzaldietako bat Joseba Arregi Kultura Kontselariarena izan zen. Txostenaren izenburuak honela dio: "HABE eta hizkuntz politika". Txosten hau eskuartera iritsi eta parada izan dudanez, bertako zenbait eztabaigarri jorratu nahi nuke. Arregik berak aipatzen du bere txosteneko hainbat baieztapen aski gogorrak gerta daitezkeela: "Badakit galdera guzi hauek adierazteak askorentzat euskararen etsaiek diotenaren doinua duena". Nik ez dakit hemen azalduko diren, baina diskurtso osoa orohar hartuta ez da bazka makala izango delako etsaiarentzat. Oso okerez banago, besteak beste, "El Diario Vasco" izan da, lehen orrialdeak eskainiz, bazka horretaz baliatu den egunkari erdalzalea.

a) Ezin falta zen, hasteko, betiko lelo gogaikarria: "Niretzat zalantzarik gabekoa

da euskara politikaren oinarrian ideologizazio haundi bat dagoela eta, ideologiarekin batera, ortodoxiaren eskakizuna, exigentzia datorrela". Hizkuntz ideologizazio kontu hau, hizkuntz komunitate menderatuen baitan sortzen den aurriritzia da. Ez dago horrelako kezkarik estatu-hizkuntzen hitzunengan: hauek beren garaian egitekoa egin zuten, hots, beren hizkuntzaren nagusitasun-hegemonia ezarri zuten, eta geroztik sortzen diren hizkuntz ideologizazioak nazio zapalduen aldetik datoz. Joseba galdezka ari denez, gu ere galdezka hasiko gara, behingoz ideologizazioaren konplexua ezabatzeko asmoz: hizkuntz praktika, gizarte praktika baldin bada, nola hezurmami daiteke praktika horren oinarrian bertan dagoen sozializazio-mekanismo rik gabe? Bestela esan: ba al dago sozializazio linguistikoa bideratzen duen ideologiarik gabeko hizkuntz jokamolderik? "Euskara politikaren oinarrian ideologizazio haundi bat dagoela" esanaz etortzea, lelokeria

galanta izateaz gain hizkuntzen gatazka historikoaren logika-aztarnarik ez edukitzea da.

b) "Zein hizkuntz politikaren helburua, gizartea euskalduntzea, esan nahi baita, egungo euskaldungoa zabalduz joatea erdaldungoa irentsiz, desagertaraziz, ala elkarrekin gizarte euskaldun eta erdaldun bateraikitzen ahalegindu?". Joseba Arregi kezkatzen hasia dago nonbait euskaldungoaren erakarren indarrak. Beldur da egungo hizkuntz politika "ezartzailearekin", irenskailu baten gisa, euskaldungoak bere baitan itoko duela erdaldungo babesgabea. Erdaldungoa, hiztunen jatorria da gutxienekoa, etni-hizkuntz dominantearen ordezkaria izan da Arregik ezagutu bide ez duen istori soziolinguistikoa. Etnia hizkuntza hori, gainera, nazio-estatu menderatzailearen bitartez objetibizatua dago gure artean. Berak orrialde horretan bertan aipatzen duen gizarte zibilaren kontzeptura joz, zehaztu beharko genuke, delako erdaldungo hori ez dela edozein gizarte zibilaren eredu. Aitzitik, eredu boteretsua da: Nazio-estatu baten oinarri eta euskarri, egitura linguistiko-kulturalari bagagozkio bederen. Besterik da, zoritxarrez, euskaldungoa itxuratzen duen gizarte zibilaren eredu. Honek, izan ere, denik gizarte zibilaren eredurik ahulena eta babesgabeena ordezkatzeko baitu: alegia, inolako botere-mekanismo gabeko "giza-arte" bat hain zuen. Bego lasai gure kontseilari jauna: "erdaldungoa irensteko eta desagerrarazteko" arriskua, oraingoz, eta batez ere berak daraman hizkuntz politikarekin, oso urrun baitago. Hain urrun, non espainiar Estatua bera baita asimilazio-prozesu horretan desagertu beharko lukeena erdaldungoa irentsia izateko. Eta badakigu hemen zenbat indar sozio-politiko dagoen horrelako proiektuetarako.

c) "Nola ihardun herrigintza gizartearen erdia, edo bere zati handi bat, beste erdiaren beharretara makurtuz, euskaldunok euskara babesteko dugun beharra erdaldungoaren hizkuntz politikako funtzio bakar gisa finkatuz eta beraien (Noren?) erru historikoaren ondorio lez justifikatuz". Arregiren iritziz, "nahi badute eta ez badute ere", erdaldunak, hizkuntz asimilazioaren arriskuan egon daitezke garatzen ari garen hizkuntz politikaren filosofia kontuan hartuz. "Gure interesaren ordaina pagatzen dutenak bezala bakarrik ikusiz", erdaldungoaren etorkizuna ez da batere gozoa izango, antza denez. Erdaldungoa, izan ere, gizarte zibila den neurrian, ez da ezereen erantzule. Erantzulea, izatekotan, Estatua da. Har ditzagun, beraz, gozo eta ezti, denok anai-arrebak gara eta Jaunaren aurrean. Gizarte zibilaren kontua dela eta, "desmitologizazio guzien oinordeko" ageri zaigu Arregi. Liberalismoa aurrerakoienaren ahoz mintzo zaigu erdal gizarte zibila eta erdal estatua bi gauza direla frogatu nahirik. Baina mitoen auzi horretan, bera da mitorik haundienean jausita dagoena: erdal-dungoa eta erdal estatuaren artean dagoen egiturazko lotura ukatzean, erdaldungoa euskaldungoaren pare tratatzen digu botere-mekanismoei dagokionez. Izatez, ordea, erdal gizarte zibilak, egungo kapitalismoaren garapen-maila honetan, ez baitu inolako autonomiarik funtsezko egituretan estatuari dagokionez. Eus-kaldungoa, aldiz, bere baitan inolako egitura-proiektu nazionalik hezurramitu ezin duen erdal gizarte zibilaren mendeko azpimultzo bat besterik ez da. Hortxe daukagu, diogunaren lekukorik gardenena, Euskal Eskola Publikoaren Legea: estatalizazioak irentsi du mendeko etni-gizarte zibilaren baitatik jaiotako proiektu-turik garaiena. Zergatik? Joseba Arregik ondo asko daki erantzuna.

d) "Euskararentzat on den gatazka bi eratara irabaz daiteke. Edota espainolez diharduten hiritarrei beraien hizkuntza kendu egiten zaie eta bestea, euskara, eman. Bigarren garaipen modua bakarrik hartzen badugu kontutan, honako galdera egitea zilegi bekik: nola lortzen da helburu hori espainolez mintzatzen diren hiritarrek horretarako borondaterik ez badute, prest ez badaude? " Arregiren konbentzimendua argia da: ez goaz inora" beharraren bidea, presioaren bidea" hautatzen badugu. "Komunikazioaren irizpidea" ezarri behar omen litzateke euskalgintzan. Joxe Juan Txabarrik ulertu duenez, "una perspectiva humanista", gaur egungo "lógi-ca administrativista" delakoaren orde. Ikuspegi humanistaren kontu horrek, propagandapolitiko egiteko balio du; hortik aurrera, deus gutxi. Mari Karmen Garmendiaren hizkuntz politika logika administratiboaren ikuspuntukoa baldin bada oinarri-filosofian, bere aldeko botere publikoa ezinbestekoa izango du. Arregik, ordea, hizkuntz liberalismoaren "laisser faire, laisser passer" hura aplikatu nahi digu "komunikazioaren irizpidez" mozturorik. Idealismo guztien borondate-ideiaren aldrean sakrifikatu nahi digu euskararen etorkizuna. Izan ere, erdal-dunak euskalduntzeko "prest ez badaude", zeregin? Zein harrobitatik atera delako borondateharri hori? Horrelako harrobirik ez baitago euskal mendietan. "Presioaren bidea" ez da gizalegea: hizkuntz gataz-karen irizpidea baitu oinarritzat. Oso merke saldu nahi digu gure kontseilariak euskara eta euskaldungoa. Idealismorik arrunte-naren truk, labur esanda. Hala eta guztiz ere, aitor diezaigun arrazoinaren pus-katxo bat: delako "logika administratiboak" ez duela gauza haundirik balio, aldi berean, eta orain Katalunian hartzera doazen erabakien ildotik, egitura-mailako normalizazio-neurriak hartzen ez direneino.

Erdaldungoak, bere eskukodituen milaka botere-mekanismoen bidez, gaindiezinezko oztopoak jarriko baititu bide erdian. Jadanik jarrita daude, gainera. Eta erdaldun askoren borondaterik eza horri zor zaio hain zuzen: ez dutela ez beharrik eta ez premiarik sentitzen euskaldungoan integratzeko. Zertarako balio du euskarak, bere erabilgarritasuna, balio sinboliko-formal hutsaren mailako den bitartean? Hizkuntz borondatea beharraren eta premiaren harrobitik bakarrik atera daiteke; baina, jakina, horretarako, euskararen presentzia garantizatu egin behar da erdaldungoaren esku bakarrik dauden ezin konta-ahala mekanismo, aparatu, erakunde eta tresnetan. Horretara doaz kataluinarrak, eta horrela gaintitzen dira Arregiren dikotomia faltsuak: hizkuntzaren subjektibitateak (borondatea, motibazioa,...) eta funtzioak (esparru-eremuak) maila estrukturaleko aldakuntzekin batera uztartzen direnean. Bien bitartean, Arregik eta delako euskararen etsai horiek, nahi adina bazka izango dute euskararekin eta euskaldungoarekin nahi dutena egiteko, orain egiten ari diren bezala: "Ante unas declaraciones como éstas, hay que comenzar por descubrirse. Arregi ha tenido la elegancia de discrepar ante un mundo que aún no conoce la palabra *autocrítica*" (Alvaro Bermejo)

e) "Gure arteko gizarte politikaren mamia ezin izan daiteke etsaigoa, bi kultur komunitate elkarren kontra jartzea. Gehiago esango nuke: lehen aipatutako gatazkaren arrastoan, garaipena lortu ahal izango balitz ere, ez litzateke komenigarri irudituko garaipen hori, bidean galduko genituzkeen balioak euskara bezain garrantzizko direla uste baitut. Baina ez dut horrelako garai-penetan sinisten". Jakitekoa litzateke "bi-dean galdu genituzkeen balioak" zertan diren, kulturbitasun sozialari dagokionez.

Norbanakoaren bitasun guztiak onartzeko prestegotea gauza bat da, edota aniztasun guztiak: inori ez baitio kalterik egingo kulturaz eta hizkuntzaz horniturik egoteak. Besterik da kultur bitasunaren auzi hori soziala denean. Gai honen inguruan entzuten eta irakurtzen ditugunak entzun eta irakurri ondoren, Claudi Estevaren lerrookurrezko balioa dute. Eta halakotzat baloratu beharko lituzke Arregi bezalako askok: "El biculturalismo responde a una situación histórica de raíz política donde el poder específico de cada cultura, para realizarse y desarrollarse como sistema nacional o étnico dentro de una estructura plural, depende de su capacidad para asimilar individualmente a los miembros de otras etnias y culturas. Esta capacidad es, sin embargo, una función condicionada por el modo político, económico y militar predominante". Arregik, ordea, ez du ez gatazkarik ez garaipenik ikusi nahi hizkuntza eta kulturaren bilakaera historikoan. "Komunikazioaren" metafisika eginaz, heterodoxiaren bandera bizkarrean hartuz, Foucaultek esango zukeen bezala, konpondu ezin dituen arazoak konpondu nahi ditu, oraingoan ere, ideologia humanistak. Baina ez konpontzea badakigu zer den: de facto, kultura menderatzailearen mendeko izatea, erdal kulturak irentsi baitu euskalduna, haren Estatu-botereari esker. Zantzu guztien arabera, kultura dominanteen sarean oso eroso bizi da gure kultur kontseilaria: horixe erakusten du, inondik ere, bere praxiak. Orduan zertara dator, alde zurretik amore emateko prest baldin bazaude, "garaipen" eta "gatazka" hitz-giltzarrien aurkako konbentzimendua? "Garaipenean" ez omen duzu sinisten. Eta sinisten al duzu hizkuntza eta kultura menderatuen aldeko borrokan? Ezezkoa dirudi. Ez da ulertzen beraz, zertan zauden, zauden karguan, ezarrita dagoen hizkuntz eta kultur logika

dominanteari men egiteko ez bada.

f) "Iritzi hauek esan nahi duten guzian hartzen baditugu euskara politikan, lehentasunak ez ditugu euskararen babes legal, administratibo eta politikoetan jarriko, are gutxiago gatazka planteamentuen maximalismoetan, bere komunikazio indarra sendotzean baizik, bere barne aberastasuna berreskuratu, gorde eta garatzen baizik, eta euskara eta berarekiko politika euskaldun ez direnentzat irekiz". Inork euskararen salbabiderik nahi baldin bazuen, orain hementxe dauka prezio merkean: "komunikazio indarra" eta "barne aberastasuna". Horra estrategi-hitzak, bere eskuko mekanismo ahul batzuk baizik ez dituen hizkuntza batentzat. Are gehiago, zehaztasunak jakin nahi izanez gero: "Komunikazioak, berriz, askatasunean harremanetan jartzen diren pertsonak daudela esan nahi du". Euskaldungoa erdaldungoa bezain aske baita bere hizkuntzan, kulturaren, politikan, ekonomian, justizian, eta zernahi erakunde-esparrutan. Ez al gara ba denok eskubide bereko Estatu-eskubidearen aurrean? Denok libre eta aske: gure harremanak, izan ere, ez baldin bagenekien, "askatasunean" oinarriturik daude. Ez dago arazorik hizkuntz eta kultur harremanak euskaraz gauzatzeko.

Itxuraz jakintza-kutsuz jantzitako Arregiren diskurtso hau, halakoxe metafisika eta idealismo (zentzurik makurrenean, jakina) geruzaz mozturiko planteamendua (konbentzimendua, bere hitzetan), bere inguruko jendearen aurrean ondo geratzeko izango da: inor geratzen baldin bazaio, jakina. Harako hark alemaniar ideologia salatu baldin bazuen, honako honetan alemaniar idealismoa kritikatu behar izan dugu: hizkuntz arazoaren dimentsio objektibo ikaragarria "komunikazioaren" metafisikara murriztu digu

gure kontseilariak. Hizkuntzaren status arazo materiala, hizkuntzaren "barne gaitasunera" gutxietsi digu. Hizkuntzaren egitura soziolinguistikoa "borondate" hutsaren eskuz eraldatu nahi digu.

Zer irudituko litzaioke hizkuntz inposizioaren kontrako gure kultur kontseilariari, hain zuzen ere, euskararen hizkuntz politika ofizialaren ahulezia hortxe datzala ondorioztatzen badugu?

* * * * *

Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna, UEU-Udako Euskal Unibertsitatea.

Hizkuntzari buruzko azterketek betidanik izan dute nork heldua gure artean. Oraingo hau soziologia, psikologia eta hizkuntzaren ikuspuntuaren eremutik landua, ikerketa eta emaitza propioz atondua, datorkigu. Euskal Herriko irakasleoi ezagutzeko komeni zaigun liburua, bertan sortutako eta gure hizkuntzaren egoeraren barneko ezagutzatik osatutako lana dugu honoko hau.

Ikerketa beraren ondorio pare bat besterik ez aipatzearen honako bi hauek aukeratuko nituzke:

1.- Dereduan eskolatzen ari garen haur euskalduna "zenbat eta kultuago izan hainbat eta erdaldunago" bihurtuz doa nonbait. "Eskolatze prozedura zenbat eta garatuagoa izan elebiduntasun indizea gaztelaren aldekoagoa bihurtuz doa". Ez dadila inor lekuz nahastu. Hori eskualde ia erabat euskaldun batean (Kosta-Urolan) gertatzen ari da, gurasoak euskaldunak dituzten D ereduan eskolatutako gaztetxoaren artean.

Duela urte batzuk nork igerriko zuen emaitza hauetara iritsiko ginenik? Ahotan euskara erabiliz ere, gaztelaren gune

Eraginkortasunik gabeko halakoxe gainegitura hutsaren ahulezian alegia, Claudi Estavaren hitzetan adierazita: "La debilidad de consistir en una superestructura que sólo es funcional mientras va acompañada del suficiente poder político para imponerse".

Joxe Manuel Odrizola

Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea

sinbolikoak egunetik egunera sustraituak daude haurren pentsamenduan.

2.- Euskararen ikuspuntutik aztertuta ere "gaztelaraz erabilitako hitz desberdin kopurua handiagoa izateaz gain, gaztelarazko hitzak askoz ere aberatsagoak dira lexikografia aldetik, kontzeptualki bortitzagoak... euskararen *menpekotasun semantikoa* erabat garbi azaltzen da" diote ikertzaileek.

Ondorio garrantz hauek hankaz gora ipintzen dute egun arte egin den planteamendua asko. Argi eta garbi azaltzen dira, besteak beste, bakardadean, liburuan eta idatzian oinarritutako hezkuntza ihardueren mugak. Izango dugu zer zuzendu hemendik aurrera, gaztelarak jotzen digun erronkari aurre egiteko. Ez da gutxi izango, halere, oraingoan emaitzak azalarazten eta diagnosi bat egiten hasten bagara.

Beste hari bati jarraituz, eskoletan gutxienez hiru motatako hizkuntza egoerakin aurkitzen gara esan dezakegu. Hiru egoera desberdin horien ildotik sortzen diren kulpabilitate nahiz lasakeriazko jarrreren aurrean argi ematera dator liburu hau.

Euskara hutsean (?) bizi diren herri txiki eta ertaineko eskoletan kezkarik nagusienetako bat da "gaztelaren ezagutza

maila eskasa lortzen dela" alegia. Eta ezjakintasunean oinarritutako hainbat planteamendu egiten ari dira eskola horietan, euskara gero eta gehiago baztertuz adibidez. Liburuak bide berriak eskaintzen ditu, kulpabilitate sentimentuak zuzenduz eta oro har arazoaren muina birkokatuz.

Herri ertainetako egoera elebidunetan kulturaren eta hizkuntza ekoizpenaren garrantzia azpimarratzen da, euskararen ezagutza hutsaren mugak azaleratuz.

Erabat erdaldundutako egoeran dauden eskoletan hizkuntza gutxituaren eza-gutzak duen garrantziaz ohartarazten da, gaitasun gramatikalaz aparte gaitasun komunikatiboan ezinbestekotasuna aipatuz.

Oraintxe bertan, euskararen ikaskuntza eta presentzia eskoletan ziurtaturik dagoenean, handitzen ari zaigun arriskurik okerrera mundu sinbolikoa ordezkatzearrena da.

Ehundaka irakasle eta guraso lasaitu da eskoletan sartuz doalako, hezkuntza mailan euskararen zeregina bere presentzia ziurtatzera mugatuko bailitzan. Area-go ikusten saiatu behar dugu ordea, euskara bera tresna egokia eta baliotsua bilakatuko duena euskararen jatorri eta ingurune kulturala da, hain zuzen. Ezin da ukatu hizkuntzak berak, bere barne egituratik bertatik, hainbat bide berri (prisma desberdinak) irekitzen dituenik pentsamendua ekoizteko orduan. Hori, ordea, ez zaio hizkuntzaren merezimendu bitxiren bati zor; aitzitik, mendeetan zehar giza-emakumeek hizkuntza horretan landuta utzi dituzten ondare kulturei eta pentsakerei zor zaie.

Honekin esan nahi dut euskararen defentsa (hizkuntza gisa) beharrezko izanik ere, ez bada bere jaioterri naturalean koka-

tzen, herri baten emaitza kulturetan hain zuzen, garrantia edo oinarri ahuleko eginahala bihurtuko zaigula denbora laburrean.

Kontuan hartzekoa da hizkuntza gutxituak dauden gisa kultur gutxituak ere badaudela. Harrigarria da gutxitasun honek zein burukomin gutxi sortzen duen, hezkuntzaren esparruan gabiltzanon artean batez ere.

Oro har gaingidutxeak ditugu *Sapir* eta *Whorfen* iritziak, hizkuntzari pentsamendua sortzeko eta antolatzeko gaitasuna ematen zioten teoria haiek. Geroztikako estrukturalisten ikerketa zientifiko hotzek, *Piageten* subjektuaren ikuspuntuak, *Chomskyren* eraikitze teoriak eta beste zenbaitenek gauzak beren onera ekarri zituzten. Giza zientzitateko alor hauei tarte handiagoz begiratzen ahalegindu ginen, prozesuen konplexutasunaz jabetuz.

Badirudi, ordea, ez zegoela guztia esanda. Ez eta zeharo zuzen esanda ere. Errusiar iraultzaren hasieraren babesean sorturiko ikerketa haiek gero eta oihartzun gehiago dute gure artean, *Vygotsky*, *Luria* eta horien lankideen eskutik. Izpi berriez argitu dituzte hizkuntza eta pentsamenduen arteko loturak. Horien iritzi sendoaren arabera, herriek eta taldeek ekoizten duten kultura da pentsakera eta hizkuntzaren arteko zubia. Horrek eragiten dio bai pentsamenduari eta baita hizkuntzari berari ere. Euskal irakasleok planteamendu horretaz zuzen ohartuko bagina benetako hezkuntzaren erreformaren atarian geundeke. *Piaget* gaingiditu ezinik gabiltzala pentsatzen dut. Edota, *Piaget* eri buruz dakigunaz baino haruntzago ezin joanik.

Ez ditugu izkutatu planteamendu horiek aurrera eramateko orduan aurkitzen ditugun oztopo astunak. Larriena aipatzeaz gero, mendebaldean hedatuz doan

forma bat eta bereko kultur mota entropikoa eta berdintzailea dugu. Jadanik, ez da zaila mundu mailako kultur uniformizatua, nahiz eta mintzo desberdinetan emana izan irudituagatik. Hori da hizkuntzak desagertzen hasteko urrats erabakiorra, kultur forma indartsuenak ezarriko hizkuntzak geratuko lirakeelarik. Ametsak? Prozesua aurreratua dagoela uste dut.

Herri bakoitzaren nortasunean eraikitako gizarte bat nahi badugu herri bakoitzaren pentsakera eta sinboloak lantzearekin beharko diogu. Kultura eta hizkuntza bikotea osotasunean ulertuz. Hemendik

ondorioztatzen diren lan-ildoak aberatsak bezain ugariak direla esan behar.

Erdal textuen itzulpen soil batekin gure haurrak (nahiz eta euskaraz mintzo) des-euskalduntzen arituko gara. Hizkuntza soilean oinarritutako hezkuntza proiektuetan, gramatika, hizkuntzaren formalismo logikoa, bitxikeriak eta memorizazioak, nagusitzen dira. Hizkuntzarekiko planteamendu kulturaletan, berriz, sinboloak eta irudiak, barne pentsakera, ahozkaritza, poesia eta bertsolaritza, nagusitzen dira. Amaitzeko esan dezadan aipatu ditudan hainbat iritziren ardura nirea dela soil-soilik eta ez aipatzen ari naizen liburuaren egileena. Ikerlari hauei esker buruan nerabilzkien hainbat kezken eguneratzeko parada izan baitut.

Iosu Txapartegi
EHUko Irakaslea